

## ESPEZIALITATEAK IREKI DIRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN

### Eskabideak aurkezteko epea: maiatzaren 4tik 10era, biak barne

122/2023 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Haren bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

#### GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

##### 590 – Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Eraikuntza eta Obra Zibilak
- Informatika
- Sistema Elektronikoak
- Sistema Elektrotekniko eta Automatikoak
- Teknologia

#### EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

##### 590 – Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Informatika
- Sistema Elektronikoak
- Sistema Elektrotekniko eta Automatikoak
- Teknologia

Eskabideak eta agiriak **bakarrrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA** ataleko “Tramitatu” botoia sakatuta

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NAN**aren edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **espediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.

- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuari xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.

**Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez**, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaien osatuko dute "masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)". Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.